



Elur giroko egunak

Neguaeren pareko hotz-beroa, inguruotan, aurreko astean eta honetan / 5

AMAIA JAUREGI ZUBELDIA

8.000 lagunen ihesaldia

Extremadurako gertaera historikoa jasotzen duen erakusketa, Andoainen ikusgai / 7

Xoxokako Eskolaren mendeurrenari omenaldia egin nahi dio auzo elkarteak, bi hitzorduren bidez / 2

Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguneko hitzorduak Andoainen eta Urnietan / 3



HH/LH

HH/LHKO ERAIKINA
BANAKAKO BISITA (deitu edo
web orrian sartu hitzordua hartzeko)

DBH

BATXILERGO/DBHKO ERAIKINA
ABENDUAREN 13an 11:00etan

Hitzordua hartu behar da web honetan:
www.urnietakosalesiarrak.com



salestarrak
MAGALE · URNIETA



AIURRI



Agirre anaiak. LANKU

Xoxokako Eskolaren mendeurreneko hitzorduak

Mugarri historiko horri omenaldia egin nahi dio auzo elkarteak, bi hitzorduren bidez

Erredakzioa URNIETA

Ehun urteko ibilbidea osatu du aurten Xoxokako Eskolak. Bada, mugarri historiko horri omenaldia egin nahi dio bertako auzo elkarteak, bi eguneko egitaraua osatuta, "Ehun urteko arnasa" lelopean.

Hitzaldiak eta Kantazaun, ostiralean

Azaroaren 28an, bi hitzaldi izango dira 18:00etatik aurrera. Batetik, landa eremuko eskolak izango ditu hizpide Joxe Garmendia idazleak. Aditua da gai horretan, hainbat ikerlan idatzi baititu bere ibilbidean. Eta, bestetik, euskararen egoeraz eta arnaguneen garrantziaz mintzatuko da Gari Goikoetxea kazetaria. Egun, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza zerbitzburua da. Ondoren, Kantazaunen kantu-saioa izango da 19:30ean. Hilabetearen azken ostiraleko saioa, beraz, Goiburu aldean egingo dute oraingoan.

Bazkaria eta bertso zaharrak, larunbatean

Azaroaren 29an, bigarrenik, bazkaria egingo da 14:00etan eta, jarraian, Unai eta Eñaut Agirrerren bertso zaharren kantaldia entzuteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Kuadrillen eguna

Gozatu ederra hartu zuten urnietarrek joan den larunbatean herrian: Poxta Zahar elkarteak Kuadrilla Eguna antolatu zuen eta, hala, goizean goizetik, ospakizun giroa izan zen nagusi egun osoan: desafioarekin eta trikipoteoarekin eman zioten hasiera hitzordusortari. Ondoren, bazkalorduan ia 200 lagun bildu ziren, iluntzeko musika-hitzorduen aurretik tripa bapo betetzeko. Gauean ere ez zuten aspertzeko tarterik izan.



AIURRI

Azaroak 25, Urnietan

Elkarretaratzea deitu zuen Urnietako Udalak azaroaren 25ean. Udal ordezkari politikoez gain, bertan izan ziren zenbait herritar, baita Bagara talde feministako kideak ere. Ana Pozas eta Ainhoa Ostolaza EAJ-PNV alderdiko zinegotziek zein PSE-EEko Consuelo Frutosek irakurri zuten adierazpen instituzionala.



AIURRI



URNIETAKO UDALA

Dozenaka lagun elkartu zen azaroaren 25ean Andoainen

Indarkeria matxisten aurka kalera irten ziren, asanblada feministak deituta



Hitzordua Goikoplazan egin zuten. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN
Hamabost minutuko isilunea egin ostean, adierazpena irakurri zuen Andoaingo Asanblada Feministak. Biktimak gogoan hartuz ekin zioten adierazpenari: "Heldu da berriz ere azaroaren 25a, eta horrekin batera indarkeria matxisten aurka enegarrenez kalera ateratzekoa. Indarkeria matxistaren aurpegi lazgarrienaren eta bortitzenaren biktimak izan diren horiek ekarri nahi ditugu gogora. Andoaingo Mugimendu Feministatik maitasun osoz gogoratzen zaituztegu, ez zaituztegu bakarrik utziko. Bestalde, urrian eta beste hainbat mobilizazioetan egin bezala, Palestinari gure elkartasun eta babesa adierazi nahi diogu, eta besarkada bat bidali palestinar herriari eta bertako feministei. Halaber, besarkada bana ere munduko beste hainbat

herrialdeetan borrokan ari zireten feministei". Sareetan gorrotozko diskurtsoak eta feminismoaren kontrako diskurtsoak inpunitate osoz zabaltzen ari direla eta, honakoa defendatzen du Asanblada Feministak: "gure garaipenen aurrean ari dira erreakzionatzen. Eragin ditugun erresistentziek jo puntuan jarri gaituzte gu, militante feministak, eta feminismoa bera. Gure boteretzeak haien pribilegioen galera esan nahi du, eta horregatik dator haien haserre. Baina hori garaipenaren seinale da: gure borroka eraginkorra dela frogatzen du".
Azkenik, gazte feministek lubaki feminista defendatzen dute, "lubaki feminista defendatzen dugu eta bertan babesten gara seinalamendu hotz, lege errepresibo, despolitizazio saiakera eta inkisizio berrietuen aurrean".

·XoXoKAKo ESKOLA·

19252025

EHUN URTEKO ARNASA

azaroak 28 ostirala

18:00 // mahaingurua
Joxe Garmendia
"Landa eremuko eskolak"
Gari Goikoetxea
"Euskara eta arnaguneak"
19:30 // Kantazaun

azaroak 29 larunbata

14:00 // bazkaria eskolan
ONDOREN // Eñaut eta
Unai Agirrerekin bertso
zaharren kantaldia

Larunbateko bazkaria 20€
Izena emateko 653746255

XoXoKAKo ELKARTEA

Urnietako

IRITZIA

JOXEAN BARANDIARAN EZAMA ANDOAINGO ALKATE OHIA (1999-2003)

A-15 eta N1 errepideen arteko lotura, Andoainen

Loturak bere errailetan darama gure herriaren etorkizuna. Beraz, gai estrategiko bat da. Konexio horrek eragiten duen trafikobolumenari ez zaio behar beste erreparatu orain arte, ez da lehentasunezkoa izan eta hori oso kritikagarria da. Politikak jakin behar du premia teknikoak eta inbertzaileak lehenesten. Posible da, halaber, batzuk politikarekin zerikusirik ez duten beste interes batzuk aztertzen aritzea eta beste lehentasun batzuk izatea, baina hori beste arazoa da.

Andoain, jakina, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat ez da lehentasuna izan. Ez da errepide-ingeniarria izan behar lotura horrekin zer nolako lardakeria egin zuten ohartzeko. Behin-behinekoa zela zioten eta horrela igaro dira 15 urte. Gogoan dut kamioiak materiala garraiatzen eta inguru hura trinkotzen ikusi izana, aurreikusitako autobaien eraikuntzari jarraipena emateko. Eta, gero, hondeamakinak eta bertan utzitako materiala kentzen hasi ziren. 15 urte eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren konponbidea "laxo" bat egitea da. Proiektu horrek, ordea, ez ditu konponduko kutsadura akustikoaren eta atmosferikoaren arazo larriak, eta nago epe ertainera

trafikoari dagozkionak ere ez dituela konponduko. Udalerrriaren hiri-garapena hipotekatzen ari dira.

Izan ere, autobidearen proiektuari uko egiteko kontzepzio klasikoa eta anakronikoa erabiltzen du Aldundiak, hain zuzen, kontzeptu ekonomikoa. Europan, tamaina horretako azpiegiturak diseinatzeko direnean ingurumen-zutabe aplikatzen da, besteak beste, gizarte-ongizatea, osasunaren babesa, gizarteratzea, pertsonen zerbitzua eta abar barnebiltzen dituen.

Alde batera utzi behar da ekonomia lehentasuna ematen dion ikusmolde klasikoa; hobespenak zehazteko lehentasunak esleitu behar dira eta lehentasun horiek gizarte-ongizatea eta osasunaren babesa dira. Arlo horietan aukera garailea da saihezbidea.

Europa barneko bideei dagokionez, bete behar den direktiba espezifikoa dago 2024/1679 izeneko. Bertan, eraikiko diren errepideen segurtasun-arriskuak ebaluatu beharri egiten zaio erreferentzia. Eta alternatibarik baldin badago, kasu honetan bezala, seguruena aukeratu ohi da.

Honaino iritsita, "Laxoa" proposamen bikaina dela adieraztea eta zenbait arduradun politikok Andoaini egindako lankidetzak eskaintza

defendatzea, andoainarrak adingabeen pare tratatzea da. bada, Andoain herriak erabaki bat hartu du eta ez dator bat Aldunditik erakusten duten kaskagorkeriarekin eta sektarismoarekin.

Zalantzarik gabe, Andoain herrirako ez ezik, Gipuzkoa osorako dagoen proposamenik txarrena da Foru Aldundiak aurrera eramanez duena. Bide-segurtasunak izan behar du lehentasuna edozein errepide-proiektu bat planifikatu eta gauzatzeko. Baita Europa barneko ibilbide berriak diseinatzeko ere. Arriskuen ebaluazio hori Andoaingo Udalaren mandatu egin da, eta alor horretan ere saihezbidea aukera hobea da, "Laxoa" baino askoz seguruagoa baita.

Beraz, aipatutako arlo horiek kontuan hartuta –gizarte-ongizatea, osasunaren babesa, bide-segurtasuna eta herrigunearen etorkizuneko hiri-garapena–, saihezbidea da Aldundiak kontuan hartu beharko lukeen alternatiba.

Lerrootan adierazitakoak, herri-kontsultaren emaitzarekin batera, Andoaingo Udalak babestu behar ditu maila guztietan. Horretarako beharrezko dituen tresna legal eta demokratiko guztiak baliatuta.



Gasteizkoak ekimeneko hainbat partaide. ARGIA

Palestinako genozidioa eta armagintza, Basteron aztergai

"25 urtez gerra desarmatzen" izeneko ekimenak solasaldia antolatu du Andoainen

Erredakzioa ANDOAIN

Abenduaren 3an izango da, arratsaldeko 19:00tan hasita. Batetik, Kataluniako Delàs elkarteko Max Carbonell aditua hizlari ariko da. Hiriko gizarte-mugimenduetan aktiboa da, batez ere etxebizitzaren aldeko mugimenduan eta Palestinarekiko elkartasun-mugimenduan. "Palestinako genozidioarekin harremana duten enpresa, banketxe eta Estatuen papera aztertuko da, eta enbargoa zertan den azalduko du", diote antolatzaileek.

Gasteizkoak taldekoek, bestalde, armagintza sektorea hizpide izango dute. Beren datuen arabera, "15 urteetan, hirukoiztu egin da Euskal Herrian gerrarako ekoizpena helburu duten enpresa, ikerkuntza eta erakunde kopurua eta, egun, 200 inguru dira".

Antolatzaileek aurreratu dutenez, "enpresa berriez gain,

badira Andoaingo SAParen gisako enpresa historikoak: solasaldian Andoaingo enpresak AEBko armadarekin edo Israelgo beste armagintza enprekin izan duen harremana aztertuko da".



Max Carbonell. DELAS

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



BABESLEAK:



ZIURTAGIRIA:



andoaINDARRA
euskaraz



Adarra eta inguruak zuritu zituen aurreko astean. AMAIA JAUREGI ZUBELDIA



Mulisko gaina, zuri. Eta, zerua, urdin. AMAIA JAUREGI ZUBELDIA

Elurteak paisaia eraldatzen du

Amaia Jauregi Zubeldia urnietarrak argazki-sorta ikusgarria egin zuen, Besabi eta Mulisko gaina bitartean

Erredakzioa URNIETA

Aurreko astean nabarmen jaitsi zen tenperatura eta, ondorioz, elur-malutak herriguneraino iritsi ziren. Ale bakan batzuk, kaleetan; mara-mara, mendialdean. Azaroaren 21ean, goizak aurrera joan ahala, zerua argitu eta aukera hori ederki baliatu zuen Amaia Jauregi Zubeldiak urnietarrak argazki-bilduma egiteko. Aiurritarren esku utzi zuen haren zabalkundea eta, lerrootan, aukeraketa bat ageri da. Argazki gehiago ikusgai dau-de Aiurri.eus webgunean, argazki-bildumen atalean. Besabitik Muliskora egindako ibilbidean egindakoak dira. "Eguraldiak hobera egin du orduak pasa aha-la. Besabitik euripean atera gara

eta itzulera eguzki-izpiekin egin dugu. Zoragarri zegoen goikaldea", aitortu zuen argazkilariak.

Inguruotan, elurteak bakanak eta epealdi laburrekoak izaten dira. Horregatik, larunbat goizean mendialdera hurbildutakoak ez ziren gutxi izan. Izan ere, elurteak ingurua eta paisaia eraldatzen ditu eta esperientzia hori bizitzea zirraragarria da zeharkaldiak egiteko, lerekin ibiltzeko edo jolasean aritzeko. Larunbata plazer txiki horiekin gozatzeko aukera baliatu zuten askotxok. Ez baitakigu urteko azkena eta denboraldi batean bakana izan ote den. Esaerak dioen bezala, dagoenean bon-bon... Aiurri.eus ere Erniozabaleko argazki-sorta ikusgai dago.



Bidean gora ez ohikoa zen paisaia. AMAIA JAUREGI ZUBELDIA



Elur malutak inguruko seinalaztapenean. AMAIA JAUREGI ZUBELDIA



Argazkilariantzat gozamina da elurtea. AMAIA JAUREGI ZUBELDIA



Mendialdea zuri-zuri, Mulisko gainetik. AMAIA JAUREGI ZUBELDIA



Urnietako
udala



Suguz enpresako lantaldea elkarriketaren harira ateratako argazkian. AIURRI

"Bezeroak eskertzen du irtenbidea azkar aurkitzeko gaitasuna"

IMANOL ARRIETA EGURROLA SUGUZ ENPRESAREN JABEA

Gudarien etorbidean dago Suguz; industria mekanizatuan eskarmentu handia duen enpresa da. Ez alperrik, 70 urte bete ditu aurtan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urnietan bizi eta Andoainen lan egin, horixe da Suguz enpresako arduradunaren egunerokoa. Iritsi orduko, instalakuntzak erakutsi dizkigu eta bisitaldia makinaren eta langileen artean egin dugu. Lantaldearen defentsa sutsua egitea izan da Imanol Arrietaren lehen azalpena. Lanbidea pasioz bizi duela antzematen zaio.

Suguz enpresak 70 urte bete ditu. Denbora handia da eta aldaketa handiak eman dira baliabideetan eta teknologian. Hainbeste denbora irauteko zein da gakoa? Garaian garaia egokitzen jakitea, akaso? Ondo zaindu ditugu bezeroak, ulertu dugu zein den bere beharra eta zaindu egin dugu. Eta horrela joan gara gure merkatua bilatzen.

Eta zein da zuen merkatua?

Enpresa bati edo fabrika bati zerbait hausten zaionean urgentziatzeko zerbitzua ematera bultzatzen gaitu konponketak. Pieza bat konpondu edo berregin,

ahalik eta azkarren, maiz egiten dugu. Gogoko dugu eta alor horretan puntakoak garela esango nuke. Bezeroak eskertzen du irtenbidea azkar eta ondo aurkitzeko gaitasun hori. Egunerokoa, nagusiki, hori da guretzat. Bestalde, produkzioko piezak egiten ditugu enkarguz.

Lan intentsiboa da zuena?

Gurea oso intentsua da. Badituz hogoetik gora urte lanean ari diren lankideak eta, oraindik orain, egunero-egunero, ikasten dugu zerbait berria. Gustuko duenarentzat oso lan polita da, baina batzuetan nekagarria da. **Zenbat SOS dei jasotzera iritsi zarete?**

Egunero, gutxienez, bat. Eta egunean bertan ezinezkoa da, gehienetan, irtenbidea ematea eta, orduan, urgentziatzeko lanak pilatuz doaz. Jakin behar da ekoizten ari zaren gainerako lanekin uztartzen. Hori ondo kudeatzea giltzarri da.

Premia handia dutenei edo arazo larria dutenei soluzioa ematea ga-

rrantzi handikoa da, enpresa horretan makina martxan jartzen ez badute diru asko galtzen ari direlako. Presio handia sentitzen duzue?

“Egin ezazue pieza hau lehenbait lehen”, jasotzen dugun ohiko eskaera bat da. Eta, une horretan, enpresa horrek duen arazoa gurea bilakatzen dute. Bapatean, Suguz da sufrikario horren parte eta garaiz amaitzea izaten da gure lehentasuna. Zorionez, lantalde oso ona daukat horrelako egoerei erantzuteko.

Zenbat langile zarete eta zein sektoretan aritzen zarete?

Une honetan 20 langile gaude. Bulegoan hiru, aurrekontuak eta antolaketa lanak egiten. Gainerakoak, tailerrean. Sektoreei dagokionez, hainbat dira: industria, oro har, automobilgintzarako tresneria, makina-erreminta, ikerketa-zentroak eta elikadura-sektorea. Eta gure ikuspegi da exigentzia handiko aeronautika ere artatu ahal izatea.

Zuena zerbitzu sofistikatu dela esan daiteke?

Estandarrak diren piezak eta edozein pieza zaila, denetik egiten dugula esango nuke. Esperimentiak erakutsi digu teknika ondo maneiatzen duen langile on bat lortzeko hamar urteko esperientzia behar dela. Bost urterekin gauzak ondo egiten dituzten langileak badaude, noski, baina askotan aurretik ikusi gabeko enkarguak jasotzen ditugu eta hamar urteko esperientziarekin eskarmentu handiagoa dute egunerokoan sortzen diren erronkei aurre egin ahal izateko.

Martutenetik Andoainera 2017an hurbildu zineten. Aldaketa onerako izan zen?

Onerako izan da. Han bi solairuko enpresa batean geunden eta, halabeharrez, tresneriaren pisua aintzat hartu behar izaten



Imanol Arrieta Egurrola. AIURRI

genuen. Hona etortzerakoan merkatua zabaldu zaigu, tresneria berria eskuratzeko pisua ez delako baldintzatzen gaituen aldagaia. Pieza handiagoeke lan egiteko aukera izaten ari gara orain. Muga batekin, ez baikara pieza erraldoiak egingo dituen enpresa. Baina orain mugarik ez dugu eta hori enpresaren estrategiari begira oso aldagai garrantzitsua da.

Beterri-Buruntzara etorri izanak eragina izan du bertako enpleguan. Oker ez banago inguruko langile ugari dituzue bertan.

Andoain, Urnieta, Lasarte-Oria... langile gehien-gehienak eskual-

dekoak dira. Oinez edo ibilgailuan bost minututan hurbildu daitezke eta hori langileek eskertzen dute.

Piezak konpontzea da zuen beste lan jarduna.

Batzuetan matxura oso handia da eta ez dago pieza berria egiteko denborarik. Horretarako esperientzia handiko lantaldea beharrezkoa da. Gure egunerokoa hori ere bada.

Zuek bezero berriei enpresara hurbildu eta instalakuntzak ezagutze-ko gonbita luzatzen diezue. Nola jokatzan duzue?

Lehenik eta behin instalakuntzak erakusten dizkiegu eta gure lan prozesua erakutsi. Gure indargunea da gure lan egiteko modua: egiaztapenez beteriko lan-prozesua da gure bide-orria.

Lehentasuna zerbitzu on bat ematea dela ondorioztatzen dut eta horrek fidelizazioan eragiten du zuzenean.

Etxean ikasi dudana da hobe dela bezero bat zaintzea hainbat berri bilatzea baino. Baina, era berean, nire lana bada bezero berriak bilatzea. Ohikoan guregana hurbiltzen den bezeroa gure artean geratzen da.

Digitalizazio garai honetan, nongo bezeroak dituzue?

Gehienak gertukoak dira, gipuzkoarrak. Beste gauza bat da guk egindakoa nora saltzen duten. Egia da, belaunaldi berriak sektorean sartu ahala, negozioaren promozioa internet eta sare sozialen bitartez egiten dela.

Industria mekanizatuaren sektorea zein egoeran dago Gipuzkoan?

Gure arazo larriena, beste sektoretan gertatzen ari den bezala, talentua bilatzea da. Lan baldintza onak eskaintzen saiatzen zara baina gerta daiteke langile horiek enpresa uztea. Konponbide errazik ez dago.

Gurean, batetik, makina konbentzionalen konponketan aritzen gara, oso lan berezi eta bakanak eginez. Eta, bestetik, kontrol numerikoa dugu. Programazioari lotutago dago hori. Horren arabera, bi profil profesional ditugu. Batzuk, grasarekin zikintzen dira, oso ondo baloratzen da mekanikari horien lana baina geroz eta gutxiago daude. Eta, bestetik, kontrol numerikoan dabilen profesionalak teknikoagoak dira. Informatikariaren lanetik gertuago dago profil hori.

Urteurrenaren berri eman nahi diozu gizarteari. Zein da xedea?

"OSO ONDO BALORATZEN DA MEKANIKARI LANA BAINA GEROZ ETA GUTXIAGO DAUDE"

Batetik, nire aitari eta bere bazkidea zenari omenaldia egin nahi diet. Euren abiatu zuten Suguz –Suarez eta Guzman bi abizenen lotura da– enpresa. Gipuzkoan enpresa ezaguna da eta Suguz garrantzitsua izaten jarraitzea nere xedea da. Batez ere, errespetuan eta bezeroaren zainketan oinarritutako enpresa izatea nahi dudalako.

Giro polita sortu dugu enpresan eta hori transmititu nahi dugu. Enpresa hau gure aurrekoek abiatu zuten eta euren egindakoz harro nago.

Elkarrizketa prestatzen ari nintze-la, zuen bezero batek adierazi dit lanak bukatzen dituzuenean sugus goxokiak helarazten dizkiezuela. Egia da hori?

Bai, horrela da. Aitak, betidanik, esaldi beretsua erabiltzen zuen enpresaren izena azaltzeko: “Suguz izena du enpresak. Sugus goxokiak bezala, baina zetarekin”. Behin, nire emazteak liburu bat erosi zuen internet bidez. Liburua iritsi zen, eta harekin batera, eskuz idatzitako eskertza-txartela eta goxoki batzuk. Konturatu nintzen, orduan, metala oso hotza dela, formalegia eta serioegia. Diru asko mugitzen da eta horrelako detailtxoak ez dira ohikoak izaten. Eredu horri jarraipena emanez, gure gertuko bezeroei, lanak amaitzerakoan, sugusak banatzen dizkiegu. Bezeroekin eta hornitzaileekin joera hori dugu. Detaille txikia da baina zoragarria da bueltan jasotzen ditugun mezuak irakurtzea.

Urnietan bizi eta Andoainen lan egin. Hori da zure inguru hurbilena, ezta?

Hiru minutu, kotxez; hamaika, bizikletan; hogeitak, korrika; eta, berrogei, oinez. Hori da nire ohiko joan-etorria. Eta, beti, mauka motzean.



2017an Martutenetik Andoainera etorri ziren lanera eta, horri esker, pieza handiagoeke lan egiteko aukera izaten ari da Suguz enpresa. AIURRI



Extremaduran jaio, eta gaztetan, bizimodua atera nahian Euskal Herrira migratu behar izan zuten zenbait herritar agertu ziren erakusketaren irekitze-ekitaldira. Ezkerretik hasita: Juankar Lucero (Caceres hiriburua), Elvira Pedrera (Malpartida de Caceres, Caceres), Angeles Amores (Clabin, Caceres), Maria Antonia Gago (Caceres hiriburua), eta, Antonia Gil (Torrejuncillo, Caceres). AIURRI

Extremadurako zortzi mila lagunaren ihesaldia jaso dute erakusketan

1936ko altxamendu faxistaren beldur, Extremadurako milaka lagunek egin behar izan zuten ihesaldi tragikoa azaltzen du erakusketak, testu eta irudien bidez. Anbrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako egoitzan jarri dute ikusgai

Xabier Lasa ANDOAIN

Abenduaren 6ra bitarte dago irekita erakusketa, astelehene-tik larunbatera, 09:00etatik 20:00era. Extremadurako Juntak, Andoaingo Udalak eta Hogar Extremeño elkarteak elkarlanean antolatu dute ekitaldia.

Zafrako (Badajoz) "Jose Gonzalez Barrero" Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkarteak diseinatu eta antolatu du erakusketa, eta gertaeren gaineko ikerketa historikoko proiektu baten barruan kokatzen da.

Erakusketa 2023ko irailaren 7an jarri zen lehenbiziko aldiz ikusgai, eta ordutik Extremadura, Madril, Katalunia, Andaluzia, Gaztela eta Euskadiko hirurogei udalerrri baino gehiagotan ikusgai jarri dute.

Milaka herritarren tragedia, bistara

"La columna de los ocho mil" (Zortzi milen zutabea) izenburuko erakusketak, 1936ko irailean Extremadurako milaka lagunek,

estatu-kolpea bultzatu zuten faxisten beldur, bizitokiak atzean utzi eta ihes egin behar izan zutenen istorioa kontatzen du. Hain zuzen ere, Badajozeko probintziaren hego-mendebaldetik Azuagaraino egin zuten ihes, Errepublikaren mende zegoen lurretara.

Uztailaren 18ko altxamendua-ren ondorioz, faxisten esku geratu ziren Andaluziako zenbait herrialde (Badajozekin mugatzen diren Sevilla eta Cordoba tartean), eta horien egitasmoa izan zen Extremadurako lurraldea militarki hartzea. Mugimendu militar horren jakitun izanik, Badajozeko hainbat herritarrek 100 km.-ko ibilbideari ekin zioten oinez, oinezko ihesi-aldi jendetsu eta ikusgarria osatuz. Milaka horietatik, emakumeak, haurrak eta adineko pertsonak ziren asko, zama-lanetarako zenbait animali bidelagun zituztela; soinean, berriz, etxean utzi nahi izan ez zituzten gauza apurrak zeramatzen.

Arriskutik kanpoko eremu libreria iristean zirela, kilometro gutxira, ordea, faxistek zutabea-ri eraso egin zioten Reina eta Fuente del Arcotik gertu dagoen inguru batean, eta 80 pertsona inguru hil zituzten.

Nahiz eta erasoak jasan, batzuek helmugara iristea lortu zuten; bien bitartean, beste batzuek atzera egin zuten; azken horietako asko beren herrietara iristean desagerrarazi egin zituzten. Bestalde, 2.000 pertsona inguru preso hartu eta Llerena herrira eramane zituzten, eta hilabete geroago, preso horietatik gehienak erail egin zituzten.

“Zortzi milen zutabea” altxamendu faxistak eragindako lehen exodo masiboetako bat izan zen.

Gogoratzekoak dira, inplikatu-kopuru desberdina izan zuten beste zenbait ihesaldi masibo. Hala nola, Malagatik Almeriarako Desbandá (1937ko otsaila) edo Katalunia eta Frantzia arteko mugan barrena 1939ko otsailean egindako azken erretiratzea. Gurera ekarrita, ezin ditugu ahaztu Gipuzkoan 1936ko abuztu-irailean eta Bizkaian 1937ko ekaina-abuztu-irailean gertatu ziren exodo masiboak, faxistengandik ihes.

Gertakari ezezaguna, historia liburuetan

Extremaduran bertan, 1936ko abuztuan, Badajozko zezen-plazan milaka errepublikano erail zituzten; egun oraindik zaila egiten da zenbatzea sarraskia, baina 1.800tik 4.000rako kopurua estimatzen dute azken urtetan egin diren ikerketa desberdinek.



Udal ordezkariak eta Hogar Extremeñoeko kideak, erakusketaren irekitze-ekitaldian. AIURRI

Bada, Badajozeko sarraski horrekin batera, Extremadurako gertakari errepresibo garrantzitsuentzat jotzen da zortzi mila pertsonen osatutako zutabearen gertakaria.

Nolanahi ere, apenas azaldu izan den historia liburuetan. Hainbat arrazoi direla medio egon da ezkutatuta historiako atal hori hamarkadetan, eta trantsizioaz geroztik ezarri zen amnesia izan da horietatik nagusia memoria historikoaren aldeko elkarteen ustez.

Hain zuzen, 2000. urtetik aurrera bakarrik hasi ziren aipatzen gertakaria, tokiko aldizkarietan idatzitako bizpahiru artikuluko txikien eskutik. Francis-

co Espinosa historialariaren La Columna de la Muerte liburuko atal txiki batean ere eman zen ezagutzera zorigaitzoko zortzi mila herritar haien memoria. Eta aldi berean, azken urtetan abian jarri diren berreskuratze lanek lortu dute plazaratzea gertakaria.

Gaur egun ere, Extremadurako familia askok ez dakite zer gertatu zen aitona-amonekin eta non dauden lurperatuta.

Arbasoen ibilaldia berreskuratuz

“Zortzi milen zutabearen Martxa” izenburuko ibilaldi aldarrikatzailea antolatu zuten iazko irailaren 21ean lehenengo aldiz,

memoria historikoaren aldeko hainbat elkarteek. Lagun ugari bildu zituen martxa hark (El Salto aldizkari digitalak argitaratutako argazkian ikus daitekeen moduan). Aurtengoan ere errepikatu dute ekimena.

1936ko arbasoen memoria eta duintasuna aldarrikatzea eta “Extremadurako eta bertako biztanleen memoria historikoa eta demokratikoa defendatzea” ditu helburu ekimenak. Aldi berean, erakunde publikoen immobilismoa ere salatzen dute, gogoratzen baitute “diktadorea hil eta 50 urtera, oraindik ere, frankismoak gure eskualdean fusilatutako % 96 inguruk desagertuta” jarraitzen dutela.

Gogoratu behar da Extremadurako legebiltzarrek, PP eta Voxen botoekin, indarrean zegoen Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea atzera bota, eta haren ordeza, “Konkordiarren aldeko Legea” onetsi zuela.

Extremadurako elkarte memorialistak oso kritiko agertu dira lege berriarekin, eta “Extremadurako duintasunaren eta memoriaren aldeko adierazpena, eta kolpearen eta diktadura frankistaren biktimak oroitzeko” izenburua daraman idatzia argitaratu dute berriki.

Besteak beste, adierazi dute lege berriak frankismoaren krimenak eta giza eskubideen urraketak ikusezin bihurtzen dituela, errealitate historikoa itxuragabetzen duela, biktimen garrantzia gutxitzen duela, eta, alde batera uzten duela haien memoria ohoratzeko eta egia historikoa bermatzeko instituzioei dagokien konpromiso instituzional eta morala.

Gertakaria, ikus-entzunezkoan jasota

2005ean, “La columna de los ocho mil” ikus-entzunezkoa kaleratu zuen Morrimer kultur elkarteak. Ordu eta hamar minututan ezin gardenago azaltzen da milaka extremadurarrak sufritu izan zuten tragedia. Angel Hernandez Garcia, Antonio Navarro Millan, Fernando Ramos Mena, Paco Freire Magariños dira bere zuzendariak.

Ikusgai jarri dute youtuben, “La columna de los ocho mil” izenburupean.



Erakusketa Ambrosia Olabide eraikinean ikusgai dago. AIURRI



1936ko gertakariak eta protagonistak gogoan, “Zortzi milen zutabearen Martxa” egin dute azken bi urtetan. EL SALTO



Gora Kaletxiki Banda Santa Krutz elizan, 2016an. Irigoras ezkerrean ageri da, saxo-tenore gisa. AIURRI

Arantxa Irigoras eta Isidro Langara oroituko dituzte

Arantxa Irigoras oroituko du eta Teofilo Gonzalez konposatzaile asturiarrak Langara futbolariari 1934an egin zion abestia joko du Gora Kaletxiki Bandak, Santa Krutz elizan emango duen kontzertuan

Xabier Lasa ANDOAIN

Azaroaren 29an, larunbat hone-tan, 20:00etan izango da emanaldia, musikarien zaindaria den Santa Zezilia egunarekin bat eginez. Gora Kaletxiki txarangako musikarietako bat izan zen Urriaren 30ean zendu zen Arantxa Irigoras, urtetan; kalean

musika jotzea izugarri maite zuen, eta makina bat alditan hartu zuen parte txarangarekin kalejiretan.

Txarangako egungo partaideek ez dute ahazten harekin igarotako une atseginak, eta horregatik oroituko dute bereziki Santa Krutzen egingo duten

emanaldian. Irigorasen familiarri zenbat estimatzen zuten modu berezian helaraziko diote kontzertuan barrena.

Gora Kaletxiki Banda Joxe Mari Oiartzabal Belokik zuzenduko du, eta Joxe Ramon Berrondo Aiertzak aurkeztuko du emanaldia.

Langararen pasodoblea

Bestalde, Isidro Langara futbolari handian inspiratutako abestiaren estreinaldia izango da emanaldiko beste pizgarrietako bat. Teofilo Gonzalez musikari asturiarrak konposatu zuen 1934an, futbolari andoaindarra munduko aurrelari goleatzaile-rik famatuenetakoa zen garaian. Hain zuzen, Espainiako selekzioarekin Italian munduko txapelketa jokatu berrikan konposatu zuen Gonzalezek abestia; Langarak munduko txapelketako aurrelaririk onenaren saria eskuratu zuen orduan. Gonzalezek "Langara. Paso-doble futbolístico" izenburua jarri zion piezari, eta Oviedoko Udal Bandak estreinatu zuen, jokalaria Italiatik hiri horretara itzuli zenean egin zioten ongietorri jendetsuan.

Aurtengo otsailean, Langara hizpide izanda Basteron antolatu zuten erakusketan ikusgai egon ziren doinuaren partiturak, eta handik sortu zitzaizen gure artean, jendaurrean zabaltzeko ideia Gora Kaletxiki txarangako kideei.

Pianoarekin jotzeko asmoz prestatu zituen partiturak Gonzalez egileak, eta Oiartzabal zuzendariak beste edozein instrumentuekin jotzeko moldatu ditu.

Kantutegia

Estilo desberdinetako doinuek osatuko dute kontzertua. Zehazki, hona zeintzuk diren emanaldia osatuko duten abestiak, berenegileak eta horietan bakarlari gisa ariko direnak:

- *Langara*. (Teofilo Gonzalez). Moldaketa: Joxe Mari Oiartzabal Beloki.
- *Buglers Holiday* (Leroy Anderson). Moldaketa: Joxe Mari Oiartzabal Beloki. Bakarlariak: Joxe Ramon Berrondo Eizagirre, Aingeru Zabala eta Xabier Ibarguren (tronpet-a-joleak).
- *Top of the bill* (Dick Ravenal). Moldaketa: Joxe Mari Oiartzabal Beloki. Bakarlariak: Aingeru Zabala (tronpet-a-jolea), Joxe Ramon Berrondo Eizagirre (fliskorno-jolea), Eñaut Egaña (tronboi-jolea), Mirari Ucin (saxo-tenorea) eta Janitz Nazabal (saxo-altua).
- *Heal the World* (Michael Jackson). Moldaketa: Joxe Mari Oiartzabal Beloki. Bakarlariak: Joxe Ramon Berrondo Eizagirre (fliskorno-jolea), Aingeru Zabala (tronpet-a-jolea), Mirari Ucin (saxo-tenorea), Janitz Nazabal (saxo-altua) eta Eñaut Egaña (tronboi-jolea).
- *Alpines March* (Giuseppe Lotario). Moldaketa: Joxe Mari Oiartzabal Beloki.
- *Noelia, America*, eta, *Un beso y una flor* (Nino Bravo). Moldaketa: Joxe Mari Oiartzabal Beloki.
- *Santa Zezilia* (Joxe Mari Oiartzabal Beloki). Hitzak: Joxe Ramon Berrondo Aiertza. Bakarlariak: Eñaut Egaña (tronboia) eta Joxe Ramon Berrondo Eizagirre (fliskorno-jolea).

Guerrero Langara familiako kideak emanaldian bertan izango dira, jokalaria mitikoaren omenezko doinua nola biziberritzen duten ikusteko irrikaz.

Abenduak 2, asteartea
19:00
Bastero Kulturgunea

LURDES IRIONDO

EZ GERA ALFERRIK PASAKO

DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA

Inge Mendioroz zuzendariaren
eta Idoia Garzes gidoigilearen
parte-hartzearekin.



INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT

INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT
IDOA GARZES ALDIZKARI ZUZENDARI INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT
IDOA GARZES ALDIZKARI ZUZENDARI INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT
IDOA GARZES ALDIZKARI ZUZENDARI INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT
IDOA GARZES ALDIZKARI ZUZENDARI INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT
IDOA GARZES ALDIZKARI ZUZENDARI INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT
IDOA GARZES ALDIZKARI ZUZENDARI INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT
IDOA GARZES ALDIZKARI ZUZENDARI INGE MENDIOROZ ZUZENDAREN FILM GAT



Prezioa: 5€

Aurre-salmenta:
Ernaitza, Stop.

Egun berean:
Leihatila.

Antolatzailea:



“Ziklo bat ixtea bezala izan da niretzat Behobia amaitzea”

PAULA LOPEZ PEREIRA BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKARIA

Estreinakoz hartu du parte Behobia-Donostia lasterketan, minbizia medio zendu zen anaia omendu asmoz. Hunkituta, hitzorduak aho-zapore gozoa utzi dio urnietarrari



Paula Lopez Pereira. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Behobia-Donostia lasterketarik utzitako aje emozionala gainetik kendu ezinda dabil Paula Lopez Pereira urnietarra: minbiziarekin galdutako anaiari omenaldia egiteko eman zuen izena eta oroitzapen gozoa utzi dio lasterketa-egunak. Gainera, ezusteko atsegina jaso zuen behin lasterketa amaituta, desgaitasuna duten pertsonak biltzen dituen Kemen klubeko elastikoa soinean, lehen postua lortu baitzuen B2 ikusmen urritasuna duten parte-hartzaileen kategorian.

Bi aste pasatxo igaro dira, jada, Behobia-Donostia parte hartu zen nuenetik. Biribil joan zen eguna eta balio emozional handiko kirol-hitzordua izan zen zuretzat.

Nire anaiaren omenez egin dut aurtengo Behobia-Donostia. Josek askotan egindako lasterketa da eta oso gustuko zuen. Beti eros-

ten zuen dortsala eta ahal zuen guztietan hartu zuen parte. Azkenekoan ezin izan zen atera, gaixo baitzegoen, jada. Minbiziarekin hil zen, oso azkar, eta lur jota utzi ninduen horrek. Orduan, galerak sortutako mina kirolaren bitartez kanalizatzea erabaki nuen. Ikastaro pila batean eman nuen izena kiroldegian: gimnasia, spinning, body pump... Egitura eman zidan horrek. Betidanik egin izan dut kirola, baina beste zentzu bat eman nion orduan, tristura kanalizatzeko modua izan zelako. Ziklo bat ixtea bezala izan da niretzat Behobia-Donostia amaitzea.

Ez dut sekula korri egin. Horregatik da harrigarria. Lehen aldia da Behobia egiten dudana. Oso zaila da dortsala eskuratzea eta Kemen taldearekin lortu dut, izan ere, % 35 eko ikusmen urritasuna daukat, nahiko gutxi ikusten dut. Bada, beraiekin jarri nintzen harremanetan eta errazagoa izan da kudeaketa: nire kasuan, B2 maila egokitu zitzaidan. Klubean badaude ikusmen oso urria duten pertsonak edoitsuak direnak, eta horiek gidarekin atera ohi dira. Nire kasuan, ez dut laguntzarik behar. **Nondik hasi horrelako lasterketa bat prestatzen?**

Neure kontura egin ditut lasterketari begirako entrenamenduak. Uda-sasoian hasi nuen prestaketa. Beti egin izan dut kirola, baina ez naiz sekula korrika ibili. Oporretan nengoenean,

egunero hamar kilometro egiten nituen korri goizean goiz eta asko sufritzen nuen. "Ezin izango dut inondik inora egin", esaten nion neure buruari. Lasterketaren egunean ere ez nintzen ziurtasunez joan. Egia da aurreko asteetan 19km egin nituela korri, aldapak entrenatu nituela... Baina ez nuenez sekula ibilbide hori egin, zalantza nintzen eta, gainera, 55 urte ditut. Nire anaiak lagunduko ninduela pentsatu nuen eta egun izugarria izan zen, oso pozik eta hunkituta nengoen. **Indar bereziarekin hasi zenuen lasterketa, Joseina Etxeberriak kuttuneko kantu bat ipini zizun eta.**

Bai, hori da! Nire senarrak lasterketaren errealizazioan egiten du lan. Orduan, Joseinari esan zion Coldplay taldearen "We pray" abestia jartzeko. Izugarri gustatzen zait kantu hori. Flan baten pareko nengoen irteeran eta abiatu orduko, kanta entzutean, "hau Patxiren kontua izan da", pentsatu nuen. Gainera, nahiz eta gerora nork bere erritmora egin korri, elkarrekin izan ginen hasieran Kemen taldeko guztiak, klubaren elastikoa soinean. Lehenago ere beraiekin prestatu nituen Hiru Hondartzetako Krossa eta 15K. Oso giro polita izan genuen, babestua sentitu nintzen. **Marka ederra egin zenuen, 01:50:05 denborarekin, lehen postua lortu baitzuenen, B2 ikusmen urritasuna duten lasterkarien kategorian.**

Bai, egia esan oso pozik horrekin! Hala ere, anekdota horretatik



Lopez, ezkerretik hasita, lehena, Behobia-Donostia lasterketan. PAULA LOPEZ

harago, lasterketa ondo amaitzea zen nire erronka. Ez nuen ezer estutu; aitzitik, lasai eta indarrez egin nuen korri, gozatzea baitzen helburua. Oso ondo joan nintzen ibilbide osoan eta amaiera oso polita izan zen. Oreretan gaixotasuna gertutik bizi izan zuen nire anaiaren lagun min bat ikusi nuen eta, helmugara iritsi baino lehen, nire koinata berrakatzeko aukera eduki nuen, Kursaallean... Hunkituta nengoen, baina amaierako esprint-arentzat ere indarrak gorde nituen. Aje emozional itzela utzi dit egunak gerora! Dena dela, helmugara iristean ez nekien lehen postua lortu nuenik nire kategorian, arratsaldean esan zidaten. Izugarriko esperientzia da, gutxienez, behin Behobia-Donostia lasterketan parte hartzea: batzuei urrun dagoen erronka dela irudituko zaie, baina prestatuta eta helburuak argi izanda, lor daiteke. Mundu guztiari luzatzen diot lasterketa prestatzeko deia! Bide batez, emakumeak ere animatu nahi ditut kirola egitera, ongizate fisikoa eta mentala zaintzeko gakoa da eta, zahartzaro oparoa izateko bidean. **Nazioarteko Batzorde Paralimpikoak darabilen sailkapena da B2 kategoria, eta ikusmen urritasuna duten pertsonen egiten die erreferentzia. Nola eragiten dizu egunerokoan? Eta lasterketan?**

% 35eko ikusmen urritasuna daukat. Lasterketari begira, ez nuen aparteko arazorik izan.

Egia da jende asko ginela eta oso adi joan behar ginen. Errepide bazterretik korri egiten ahalegindu nintzen, kontrol handiagoa izateko. Bestela, egunerokoan, gehiago baldintzatzen nau. Adibidez, gauak, iluntasunak ez du laguntzen. Lanean, pantaila handi bat daukat, padelean ez dut pilota ikusten... Mugatuta nago, baina egokitu egiten naiz.

Garrantzitsua al da zuretzat horrelako lasterketetan bai espazioaren kudeaketa eta bai entzumen-estimuluak entrenatzea?

Zentzu horretan, moldatzen naiz, bai. Nire kasuan, bideari arreta jartzea da gehiago, nondik noan ikusteko.

Kemen kirol-klubaren elastikoa jantzita hartu zenuen parte lasterketan. Behobia-Donostia lasterketaren harira ezagutu nuen nik kluba. Harrera beroa jaso dut beren partetik, mundu guztiari irekita dagoen taldea da eta desgaitasuna duten pertsonak biltzen ditu. Berria naiz honetan eta talde egonkor batean sartzea lagungarria egin zait.

Behobia-Donostia lasterketa, Donostiako Maratoi eguneko 10 kilometroko lasterketa... Behin martxa hartuta, zein asmo edo erronka dituzu etorkizunari begira?

Gozatu dut orain artekoa eta Behobia-Donostiak harrapatzen zaituela diote: antolaketa, animoak... Lasterketa ederra da, baina ez dakit korri egiten jarraituko ote dudana. Denborak esango du hori!



Euskalduna. AIURRI

Bigarren partida jarraian irabazi nahi dute

Aurreko asteburuan Deustu garaitu ostean Urolaren bisitaldia jasoko du Euskaldunak

Erredakzioa ANDOAIN
Ohorezko erregional mailara egokitzen ari da Euskalduna eta aurreko asteburuan hain preziatua den garaipena eskuratu zuen Zubietan, Deustu taldea 1-4 gailenduz. Larunbat honetan, 16:00tan hasita, Urola hurbilduko da Ubitartera eta partida hori baliatu nahi du Andoaingo klubak bigarren garaipena jarraian eskuratzeko.

Gorengo mailako emakumezkoak
Urnietak 1-6 garaitu zuen Santo Tomas Lizeoa eta Euskaldunak, berriz, 2-1 Usurbil. Multzo honetan lider sendoa da Andoaingo taldea.

Leizaran Lanbroa taberna, lehen garaipenaren bila

Emakumeen Euskadiko senior ligan denboraldiko lehen garaipena eskuratzeko helburu izango du Andoaingo taldeak. Larunbat honetan Allurralden hitzordua dute Irauli Bosteko taldearen aurka. Sailkapenaren behealdean dauden taldeen arteko partida izango denez, Leizaranek lehen bi puntuak lor ditzake. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da partida.

Euskal Ligan ari diren gainerako hiru taldeak, bestalde, etxetik kanpo ariko dira aste-buru honetan: kadete eta juvenil mailakoak, Tolosa CFren aurka; eta, Leizaran Ernio Inmobiliaria senior mailako gizonezkoak, Urdanetaren aurka.

Jardunaldi bikaina Urnieta KE eskubaloit taldearentzat

Urnietako eskubaloit taldeentzat jardunaldi bikaina izan da, lau taldeetatik hiruk garaipena lortu baitute. Nabarmendu behar da senior gizonezkoen Urnieta Artola Harategiak lortutako garaipena, 1. Territorialeko liderrari, Aritzbatalderei, irabazi baitzion (33-36). Igande honetan, 12:00tan hasita, Pulporen aurkako partida jokatu dute etxean.

Urnietak Lanchas Bus kadete neskek ere garaipena eskuratu dute, hirugarrena jada, Aloña Mendiren aurka (31-25). Bigarren faseko lehen partidari, Urnieta Iñaki Mecanizados kadete mailako mutilek garaipen estua lortu zuten Bergararen kantxan (22-25).



ORIAMENDI

Ansaren erakustaldia

Orona Fundazioa-Binakako Txapelketan sekulako erakustaldia egin zuen urnietarrak, aurreko asteburuan. Maisutasun horri esker partida irabazi eta lidertzan dira orain. Sailkapena: 1. Ansa II-Zubiri (12 puntu, 4 partida); 2. Aldabe-Azpiroz (8 puntu, 4 partida); 3. Ezkurra II-Larrañaga (8 puntu, 3 partida); 4. Jabalera-Juanenea (-1 puntu, 3 partida).



BURUNTZALDEA IKT

Neguko txapelketa

Gipuzkoako eta Euskal Herriko Neguko Txapelketan parte hartzeko prestaketa aurrera darrai. Azaroaren 15ean Hernanin aritu ziren Aitor Estanga, Laida Guerrero, Nille Becerra, Ander Martinez eta Ane Meyer andoindarrak. Abenduaren 13an hitzordu berria dute, berriro ere Hernanin. Talde giroarekin gozatzen ari dira gazte igerilariak.



Martin Jose Begiristain. BEGIRISTAIN

Realaren Urrezko Intsignia jaso du

Martin Jose Begiristain Iriarte andoindarra 1971az geroztik da bazkide

Erredakzioa ANDOAIN
Nabarmentzekoa da bere familia osoak Realari erakusten dion fideltasuna; izan ere, bere emazte Mari Carmen Baztanek 44 urte daramatza bazkide gisa, eta biren seme Julenek 32. Aste honetan Jokin Aperribay presidenteak ipini zien Urrezko Intsignia Begiristaini eta beste 67 bazkideri. Anoeta estadioan egindako ekitaldian klubeko kontseilariak, beteranoak, kirolarduradunak eta lehen taldeetako jokalariek izan ziren. Ekitaldian izan ziren Martin Jose, Mari Carmen eta Julen. Egun handia izan zen Begiristain-Baztan familiarentzat.

LV

BINAKAKO

ERREMONTE

TXAPELKETA 2025

Orona

Fundazioa

AZAROAK 29

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA JAI ALAI

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

DESKARGA · ESKUDERO VS

AIESTARAN VII · GOIKOETXEA VI

2. PARTIDA (BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA)

JABALERA · JUANENEA VS

EZKURRA II · LARRAÑAGA

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

ANSA II · AIESTARAN VI VS

GOIKOETXEA V · AZPIROZ

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Erakusketa

"La columna de los ocho mil" erakusketa, 1936ko Gerran extremaduraren ihesaldia azaltzen duena.

Anbrosia Olabide.

Azken eguna: Abenduak 6.

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN Ekitaldia

Bederatzi herrikide omenduko dituzte Andoaingo odol-emaileen bilkuran.

19:00, Udaletxea.

Azaroak 28, ostirala.

ANTZERKIA

URNIETA "Yo soy azul"

La Chivata konpainiaren antzezlan. Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako jarduera.

19:00, Sarobe. 7 euro.

Azaroak 30, igandea.

URNIETA "Ai, gure juaneteak"

Tartean teatroaren antzezlan.

"Esaniko hitzak" estiloan, antzezan eta musika saioaren erdibidean.

19:00, Sarobe. 7 euro.

Abenduak 2, asteartea.

URNIETA "Desobedienteak"

Ttanttaka Teatro konpainiaren aurre-estreinaldia, 18/98 sumarioa ardatz hartuta.

19:00, Sarobe. 7 euro.

Abenduak 14, igandea.



Asier Burguete. INSTAGRAM

ANDOAIN Txiki Dantz, Asier Buguete aktorea DJ lanetan

Andoaingo Udalak, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, musika saioa antolatu du. Gozazen telesailan eta Andoaingo Gau Beltzara hurbiltzen den "Akerrak Okerrak" konpainiarekin ezaguna da Asier Burguete aktorea.

Oraingoan, haur eta gaztetxoak dantzan jarriko ditu.

17:30, Juanita Alkain plazatxo. Abenduak 3, asteazkena.

DOKUMENTALA

ANDOAIN Lurdes Iriondo

"Ez gara alferrik pasako" dokumentala eta, ondoren, solasaldia Inge Mendioroz zuzendariaren eta Idoia Garzes gidoigilearen parte-hartzearekin. Zinemaldian eta Urnietan aurre-estreinaldiak egin ostean, aretoetan da dokumentala.

19:00, Bastero Kulturunea.

Abenduak 2, asteartea.

MUSIKA

URNIETA Beltran Iaukotea

Juan Mari Beltran Laukotea Saroben ariko da. Manttaiek adierazitakoaren arabera, kontzertuan "kantu, doinu, dantza eta gure soinu-tresnen hotsen bitartez 'Euskal Herri musika'-ren zenbait alderdi erakustea dugu helburu".

19:00, Sarobe. Dohainik.

Abenduak 3, asteazkena.


Urnietako Idiazabal kalea

Asteartean hasita, Idiazabal kalea moztuta izan da bulebarizazio lanei amaiera eman asmoz. Asfaltatze-eta fresatze-lanei ekin zieten eta lanak burutzeko zehaztu gabeko denbora-tartea iragarri dute. Lanen ondorioz, herri barruko trafikoa aldatu egin da, behin behinean. Gainera, bi bus geltoki izango dira soilik, Denda Berrin eta Ermotegiko biribilgunean, hurrenez hurren.



AIURRI

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Gaua

Larunbata, 29. 19:30.

Igandea, 30. 19:30.

Astl., 1. 17:00, 19:30.

Super Charlie

Euskaraz.

Larunbata, 29. 17:00.

Igandea, 30. 17:00.

Tigre galdia

Euskaraz.

Larunbata, 6. 17:00.

Igandea, 7. 17:00.



SINOPSIS

Gaua

Zuzendaria: Paul Urkijo Alijo. **Aktoreak:** Yune Nogueiras, Elena Irureta, Ane Gabarain, Iñake Irastorza, Erika Olaizola, Manex Fuchs.

Generoa: Izu-ikara eta fantastikoa. **Iraupena:** 93 minutu.



"Gaua" filmaren estreinaldia

Gaua Paul Urkijo arabar zinema zuzendariaren euskal film fantastikoa da. Zuzendariaren hirugarren film luzea da, "Errementari"ren eta "Irati"ren ondoren. Euskal mendietan kokatzen da filma, XVII. mendean. Sorgin-ehiza betean, Kattalineke (Yune Nogueiras) atzean utziko du baserria gauaren erdian, senarrarengandik ihesi. Basoaren belztasunean galduta, haren atzetik dabilen presentzia sentitzen hasiko da. Bere bidean hiru emakume maitagarriekin egingo du topo eta, arropa garbitzen duten bitartean, herriko beldur eta esamesen ipuinak kontatuko dizkiote elkarri. Kattalinen harridurarako, bera izango da istorio horien protagonista. Kondairetan, euskal mitologiako hainbat pertsonaia agertuko dira: Gaueko, Inguma, Aideko, Belagilea, Mateo Txistu eta Akerbeltz.



"Moebiusen ertzak", Garazi Kamioren eleberri berria

Aste honetan aurkeztu du Elkar argitaletxeak,
Kutxa Fundazioa Irun Literatura Saria irabazi ostean

Erredakzioa ANDOAIN

Garai oparoa bizi du Andoaingo idazleak. "Bikini" aurreko liburuan gazte literaturan murgildu zen eta Euskadi Sarietako finalista izendatu zuten. Oraingoan, "Moebiusen ertzak" liburuan, helduen literaturari heldu dio. Azken hori izan da, gainera, Kutxa Fundazioa Irun Literatura Sariko irabazlea. Honatx, Kamioaren ibilbidea, liburuz liburu: "Orube abandonatuak", "Beste norbaiten zapatak", "Akats bat lehenengo lerroan", "Bikini" eta "Moebiusen ertzak".

Argitaletxeak hitz hauekin aurkeztu du liburuaren mamia: "Transexualitatea eta zahartzarora gurutzatzen dituen istorio honekin irabazi du Garazi Kamiok Irun Hiria eleberri saria. Bizitza hanka-puntetan igaro duten pertsona batzuen epika apala, tragedia ilunik gabeko



drama, malko errazik gabeko hunkiduraz kontatua. Moebius zinta baten antzera, ertzak leunduak dituena eta alde kontrajarriak ez".

Andoaingo liburudendetan eskuragarri dago, honezkero, "Moebiusen ertzak" liburua.



Izaro Arruti eta Kike Amonarriz, "Tribuaren Berbak" saioko gidari

ETB1eko denboraldi berrian, andoaindarra izango da aurkezlea

Erredakzioa ANDOAIN

Abenduaren 3an, Euskararen egunean, itzuliko da saio eza-guna ETB1era. Oraingoan, Amonarriizek Arruti andoaindarra izango du lankide. EITBk aurrreratu duenez, "euskarari eta hizkuntzei buruzko entretenim-

mendu eta dibulgazio saioa Kike Amonarrizek eta Izaro Arrutik gidatuko dute abenduaren 3tik aurrera. Gure nortasunaren oinarri den hizkuntza, euskara, izango du erdigunean, beti begirada positiboz eta modu erakitzailan landutako edukiekin”.

Musika-tailerra, La Salle Berrozpek antolatuta

Ostiralean, La Salle Berrozpe Ikastetxeak musika tailerra antolatu du. 2023an jaioentzat da, arratsaldeko 17:00tan hasita, Haur Hezkuntzako eraikinean. Tailerraren dinamizatzailea Susana Cencillo akordeoi-jotzailea eta musika dinamizatzailea da. Izen-ematea (plaza mugatuak): 943 59 05 57 telefono zenbakira deituta.

Euskararen eguna, Aita Larramendi ikastolak antolatuta

Larunbat honetan izango da.
Honatx, egitaraua:

12:00 Bilkura Juanita Alkain plazan. Ondoren, kalejira trikitilariekin eta Lebitornekin, Kale Nagusitik Zumeara plazaraino.

12:30 Zumea plazan txalapartariak, dantzak, antzerkia, abestiak, Argitxoren bisitaldia, jolasak, talogileak.

Bitartekotza enpresa bat, txosnen auzia bideratzeko

Gizagune fundazioa bitartekaritzaren-entrepresa kontratatatu du Urnietako Udalak txostenen auzia bideratzeko. Joan den azaroaren 19ko Jai Batzordean eman zuten erabakiaren berri udaletxeko gobernu taldeko kideek eta, Urnietako Udalak ohar bidez jasotakoaren arabera, erabakiak ez zuen eragile guztien oniritzia jaso.



Asier Burguete aktoreak etxeko txikienei zuzendutako festa Andoainen

KOREOGRAFIAK, EUSKAL MUSIKA ETA SORPRESAZ BETERIKO IKUSKIZUNA

ZATOZ!

Abenduak 3, asteazkena

17:30

Juanita
Alkain
plazan

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babeslea



Suguz

70

1955-2025



5 ardatzeko
mekanizazio
zentroak

Artezketa

Torneatzea /
Giltza-bideak

CNC tornua

Alanbre-ebaketa

Zulaketa

Piezen konponketa

Zorionak!



www.mecanizadossuguz.com

Gudarien Etorbidea, 39 • 20140 Andoain
info@suguz.es • Tel.: 943 45 30 11 - 943 46 02 69 • Faxe: 943 45 76 53